



Javier Bikandi Irazabal  
Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria  
Funtzio Publikoko Sailburuordetza  
Herri Administrazio eta Justizia Saila

Jaun hori,

Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan ekainaren 26an, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Herri Administrazio eta Justizia Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen duenez, euskal herri agintek herritar guztien partaidetza bideratuko dute politika, ekonomia, kultura eta gizarte alorretako bizitzan (9.2.e artikulua). Halaber, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du bere autogobernu erakundeen antolaketa, araubidea eta jarduera arautzeko (10.2 artikulua); euskal zuzenbidearen berezitasunen eta euskal antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu-arauak eta administrazio-jardunbideari zein ekonomia-administraziokoari dagozkion arauak onartzeko (10.6 artikulua); eta euskal sektore publikoa arautzeko (10.24 artikulua).



Bestalde, estatu mailan gardentasun, informazio publikorako sarbide eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea onartu zen. Informazio eskaerak jorratzen dituen 17. artikulua 4. paragrafoan adierazten da eskatzaileek edozein hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dutela herri administrazioengana jotzean. Azken xedapenetako bederatzigarrenak dioenez, autonomia erkidego eta toki erakundeetako organoek bi urteko epea dute legeak ezarritako betekizunetara egokitzeko.

Estatutuko eskumenen babesean, orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez Euskal Sektore Publikoaren Gardentasuna, Herritarren Parte Hartzea eta Gobernu Ona arautuko dira.

Lege Aurreproiektuaren I. tituluan xedapen orokorrak jasotzen dira (1-4 artikulua), II. tituluan politika publikoen plangintza eta ebaluazioa lantzen da (5-14 artikulua), III. tituluan Euskal Sektore Publikoaren Gardentasuna (15-55 artikulua), IV. tituluan herritarren parte-hartzea eta parte hartzeko prozesuak (56-66 artikulua), eta V. tituluan gardentasunerako eta gobernu onerako organismoak eta erakundeak (67-82 artikulua). Azkenik hiru xedapen gehigarri; bi xedapen iragankor; eta hiru azken xedapen daude, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legea aldatuko dituztenak.

Bestalde, aztergai dugun Lege Aurreproiektu horretan badaude zenbait hizkuntza aipamen:

-4.2.e) artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak herritarren zerbitzura bideratuko du bere jarduna, eta funtzionatzeko printzipio gidari hori gauzatzeko printzipio batzuk aplikatu behar ditu herritarrekiko interakzioan, besteak beste “Hizkuntza-normalkuntza: administrazio-jardueran euskararen erabilera normaltzea bultzatuko du”.

-4.2.n) artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak herritarren zerbitzura bideratuko du bere jarduna, eta funtzionatzeko printzipio gidari hori gauzatzeko printzipio batzuk aplikatu behar ditu herritarrekiko interakzioan, besteak beste “Soiltasuna eta ulergarritasuna: izapideen konplexutasuna murriztuko du, eta arau eta prozedura argi eta errazak edukitzeko bidea emango du, administrazioa herritar guztiengana iristea ahalbidetzen duen hizkera ulergarria erabiliz”.

-Informazio publikoaren gardentasuna eta kalitateari buruzko 15. artikulua 3. paragrafoko d) idatz zatiaren arabera, “Erraz irakurtzeko materialak” direla ulertuko da, “testuen sinplifikazioa bultzatzen duten nazioarteko estandarren arabera egindakoak, hizkera xumea eta zuzena, eduki eskuragarriak eta edukia eta forma bateratzen dituen diseinua dutenak, herritar guztiarentzako modukoak izan daitezten”.

-20.2.b) artikulua jarraiki, herritarrekiko interakzioaren eskumena daukan sailak gardentasun-txosten bat egingo du urtero, Legebiltzarrerara bidali eta argitaratuko dena, herritarrekin interakzio komunikatiboa sustatzeko, eta bertan zehaztuko da, besteak beste “eskaera egiteko erabilitako hizkuntza”.

-23.2 artikulua dioenez, behar diren bitartekoak jarriko dira, batez ere elektronikoak, errazagoa izan dadin datuak birbanatzea, berrerabiltzea eta ustiatzea, eta informazioa guztiz eguneratuta eta erraz eskuratzeko eta ulertzeko moduan egotea bermatuko da,

“bai eta gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egotea ere, indarrean dagoen legeriak ezarritako moduan”.

-Informazio publikora iristeko eskaera arautzen duen 42. artikulua 6. paragrafoaren arabera, “Eskatzaileak Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan zuzendu ahal izango zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateei. Atal honetan ezarritakoa ez da eragozpen izango noizbait Administrazioak beste hizkuntza batzuetan aurkeztutako eskabideei erantzutea erabaki dezan, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Legean ezarritakoaren arabera. Zehazki, eskabidea administrazioa kokatuta dagoen lurraldeko edozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango da, kanpo-ordezkaritzak edo EAEtik kanpo dauden Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateak badira”.

-Erregelamenduak egiteko ekimenak sustatzeko eskubidea jorratzen duen 65. artikulua 7. paragrafoari jarraiki, eskumenak dituen sailak, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 5.1 artikuluekin bat, izapidetzen hasteko agindua onartuz ebazpena eman eta gero, “testua bi hizkuntza ofizialetara itzuliko da, itzuli behar bada”.

Aitzitik, uste dugu “testua beste hizkuntza ofizialera itzuliko da” agertu beharko litzatekeela “testua bi hizkuntza ofizialetara itzuliko da, itzuli behar bada” horren ordez. Izan ere, alde batetik, testua hizkuntza batetik bestera itzuliko da, ez bi hizkuntza ofizialetara. Eta bestetik, aintzat hartu behar dugu lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituen Eusko Jaurlaritzaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakiaren arabera arau proiektuak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo direla beti, negoziazio, audientzia eta kontsulta izapideei ekin baino lehen, eta egokia izango litzateke Lege Aurreproiektuan ere irizpide bera jasotzea.

Hizkuntza politikaren ikuspegitik egokiak dira hizkuntza aipamen horiek, 65.7 artikuluari buruzko oharrei kalterik egin gabe, eta beraz, Lege Aurreproiektua aztertuta, euskararen erabileraren normalizazioari begira positibotzat jotzen dut.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2015eko uztailaren 17an

Joseba Lozano Santos  
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria